

**Espedientearen kodea:** 2022ZZ020009

**Espedientearen gaia:** 2022an Xanistebanak jaietan ekitaldiak antolatzeko dirulaguntzak.

**Titularra:** OIARTZUNGO UDALA

## EBAZPENAREN ZIURTAGIRIA

**Maria Victoria Joaristi Olariaga, Oiartzungo Udalaren idazkari naizenak:**

**ZIURTATZEN DUT:** Udal honen Osoko Bilkurako Batzarrak, 2022/06/29n, beste batzuen artean ondorengo akordioa hartu zuela:

**“2022KO OIARTZUNGO XANISTEBANAK JAIETAN EKITALDIAK ANTOLATZEKO DIRULAGUNTZEN BANAKETA ONARTZEA ETA ORDAINKETAK EGITEA**

2022/04/27ko Udal Osoko Batzarrean 2022 urteko Xanistebanak jaietan ekitaldiak antolatzeko dirulaguntzen oinarriak eta 50.000 €ko gastua onartu ziren. Oinarriok argitaratu eta eskaerak aurkezteko epea ireki zen maiatzaren 1etik 31a arte. Emandako epean 23 eskaera jaso dira.

Kultura teknikariak eskaerak aztertu eta onartutako oinarrien arabera puntuatu ditu, dirulaguntzen banaketaren proposamena osatzeko.

Horrela, 2022ko ekainaren 24an egindako Kultura Batzordeak aldeko diktamena eman dio proposamenari.

Guzti hau kontutan hartuta, Udalbatzak honako erabakia hartu du:

1.- 2022an Oiartzungo Xanistebanak jaietan ekitaldiak antolatzeko dirulaguntzak herriko elkarteei banatzeko eta ordaintzeko proposamena, eranskinean jasota dagoen moduan, onartzea.

2.- Oinarriek ezarri bezala, onartutako banaketaren araberako ordainketak egitea modu honetan: %80a (36.572 €) banaketa-proposamena onartzearekin batera eta gainerako %20a (9.143 €) interesatuek gastuak justifikatu ondoren ordaintzea. Ordainketa udal aurrekontuko 1 0801.481.338.00.10 2022 (A561/2022) diru atalaren kontura egingo da.”

Eta horrela jasota gera dadin ematen dut ziurtagiri hau, azaroaren 28ko 2.568/1.986 Errege Dekretuaren 206 artikulua arabera, Oiartzunen, sinaduraren egunean.

Done Eztebe plaza 1 – 20180 Oiartzun 943 490 142 – [www.oiartzun.eus](http://www.oiartzun.eus)

EUSKAL HERRIA 



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU6dabb06e-2c43-45b3-bb5b-7a34252193a9**

Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:  
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310>

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2022ZZ020009-Ebazpena pleno/Ebazpena pleno (OIARTZUNGO UDALA)